




IPIa %0,4 jaitsi zen apirilean

Industriaren ekoizpena
Urte bakoitzeko apirila. Indizea




Iturria: Eustat.

EAEko industriaren ekoizpena, 2023ko apirilean, aurreko urteko hilabete berean baino %0,4 txikiagoa izan zen. Jaitsiera horretan indizearen osagai guztiek parte hartu zuten, kontsumo ondasunek izan ezik, hauek %2,1eko hazkunde tasa izan baitzuten.

EAEko ekonomiaren termometroa 87,7ra apaldu da

EAEko ekonomiaren termometroa
Indizea




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiaren termometroa 87,7an kokatu zen maiatzean, eta, beraz, hazkunde leuneko eremuan jarraitzen du. Moteltze horren atzean dauden arrazoi nagusiak dira familien kontsumoa gutxiago hazi izana eta, neurri txikiagoan, esportazioen bilakaera.



Etxebizitzen salneurria %3,1 garestitu zen

Etxebizitzen prezioa EAEn
Indizea




Iturria: INE.

INEk argitaratutako azken datuen arabera, **2023ko lehen hiruhilekoan etxebizitzen prezioa %3,1 garestitu zen EAEn, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.** Hala, etxebizitzen prezioek gora egiten jarraitzen dute, baina finantza krisiaren aurretik izandako mailetatik urrun daude oraindik.

EAEn sortutako sozietateen kopurua mantendu egin da

EAEn sortutako sozietateak

Urte bakoitzeko urtarriletik apirilera bitartekoak



Iturria: INE.

2023ko lehen lau hilekoan, 1.122 sozietate eratu ziren Euskadin. Kopuru hori ia aurreko bi urteetako erregistro bera da, pandemiaren urtean lortutako zifra nabarmen gaituz. Halaber, aurtengo datua aurreko urteetako zifren oso antzekoa da.